



Idatzi honen bidez, Abaltzisketako Udalak, abiadura-mugak errespetatuz gidatzeko eskatzen dizue, batez ere, herri-bide eta baserri inguruetan ibilgailuak abiadura handian ibiltzen direla eta kexak egon direlako.

Gogoratu, abiadura desegokian gidatzea dela arrisku-faktore handienetako bat trafikoan. Abiadura gehitu ahala, gidariak ibilgailua kontrolatu eta geratzeko duen gaitasuna murrizten joaten da. Horregatik, beti errespetatu behar dira abiadura-mugak eta gogoan izan, muga horiek gidatzeko baldintzak aproposak direnerako ezarrita daudela. Eguraldi txarra, euria, haizea, elurra, etab. dagoenean, are gehiago murriztu behar dugu abiadura eta errepidearen eta zirkulazioaren egoerara moldatuko dugu beti.

Horrela, egungo arautegia errespetatu, hau da, herri bideetan 30 km orduko abiadura muga ez gainditzea, eta bereziki baserri inguruetan gidatzerakoan arreta handitzea eskatu nahi dugu udaletik.

Aurrerantzean abiadura muga hauek errespetatzen ez direla jakin ezker, udala zuzenean jarriko da harremanetan araua hausten duen pertsonarekin, eta hala ere jokaera aldatzen ez badu, udala neurri bereziak hartzera behartua egongo da.

Saia gaitezen jokabide desegokiak ekidin, eta guztion segurtasuna bermatzen! Guztion esku dago.

Abaltzisketan, 2010eko uztailaren 12an

Alkateak